



Gaueko ilunean

Gaueko ilunean
Zuhaitz bitartean
Ilargia ageri da
Borobil betean

OLARA ALA RIO
OLARA LA RIO
OLARA ALA RIO
OLARA LA RIO



Kanonez kantatzeko: lehen taldeak 1.kopla bukatu eta bigarren taldea hasten da 1.koplarekin.

Doinua: youtube, gaueko ilunean (canon) edo Lezo Eguberri kantak

Gure Aitona zaharra

Gure aitona zaharra, pipa hortzetan duena
aizkora eta xahakoa, Olentzero da
Zakua ikatzez beterik, menditik jautsiko da
gau luze hau argituko da, Eguberri da



Argia, egiazko oparia
Argia, Eguberri da (berriz)

Gaur egonen naiz beha, ezin dut hartu loa
Olentzero etorriko da, ene ikustera
Oparien banatzeko, ez du nehor ahantziko
elkartasun eta bakea, Eguberri da

Irene Borda (Kantu kreole baten egokitzapena)
Kantua eta instrumentala: Olentzero kantuz KD-ean



Haur maitea

Olentzero jautsiko da
Eguberri ospatzera
Herrira etorriko da
Haur maitea, lokartzeko tenorea da



Zure begien dirdira
Zeruko izarren idurikoa
Goxoa, lasaia
Gauaren isiltasun miresgarria

Mari Domingi, maiteena
Erne eta abilena
Harekin agertuko da
Haur maitea lokartzeko tenorea da

Negu hotz eta iluna
Argitzeko, berotzeko
Ikatza da oparia
Haur maitea lokartzeko tenorea da

Bihar goizean, haur polita
Zure amets ederrenak
Gauzatuko direlakoan
Haur maitea lokartzeko tenorea da

Irene Borda
("Old toy trains"- Roger Miller-en kantua egokitzapena)
Kantua: Hiriondo ikastolako ikasleak, Olentzero kantuz KD-ean



Paper aski gogorrean inprimatu ondoren, motz ezazu eta kola euskarri baten gainean.



Zati bakoitzaren izena idatz ezazu: *xahakoa, kapoia, kriseilua, Olentzero, txondorra, arrotzeak zarean, zakua.*

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	

